

2013-10-07

## **ARRASATE / Udal bibliotekak Biblioteca eguna ospatuko du urriaren 21etik 24ra**

**Aurten, lehenengo ospatuko du egun hau udal bibliotekak. Haur  
zein helduentzat ipuin kontaketak antolatu dituzte herritarrok  
bibliotekara hurbiltzeko asmoarekin.**

Aurten, udal liburutegiak Biblioteca eguna ospatuko du urriaren 21etik 24ra. Estatuko hainbat herri eta liburutegietan ospatzen den jaia da hau, Amigos del Libro izeneko elkarteak urtero bultzatzen duena. Arrasatek lehenengo aldiz jarduera berezi batzuekin ospatu nahi du egun berezi hau eta horretarako, ipuin saioak antolatu dira heldu zein haurrentzat.

Urriaren 24an ospatzen da Biblioteca eguna, baina gurean lehenago emango diote hasiera egitarauari. Hala, urriaren 21ean, ipuin saioa izango da Santa Marina auzo bibliotekan 4, 5 eta 6 urteko haurrei zuzenduta. Urriaren 23an, ostera, *El guardián de los cuentos* ikuskizuna izango da Kulturateko Areto nagusian, arratsaldeko 18:00etan. La Tartana Teatro taldearen eskutik izango da emanaldia eta 6 urtetik aurrerako haurrei zuzenduta egongo da.

Bukatzeko, Bibliotekaren egunean, hilaren 24an, helduei zuzendutako ipuin saioa antolatu du udal bibliotekak. Kulturateko Areto nagusian izango da hau, arratsaldeko 19:00etan, eta Boni Ofogo (gaztelaniaz) eta Koldo Amestoy (euskaraz) izango dira kontalariak. Lehena, Manuel Iradier Elkarte Afrikanistarekin lankidetzen etorriko da gurera.